



«ORDENAGAILU PERTSONALEN, MONITOREEN ETA INPRIMAGAILUEN HORNIKUNTZA»

Preskripzio tekniko partikularren agiria

Edukia

Preskripzio tekniko partikularren agiria	1
1.- Kontratuaren xedea	2
2.- Hornitu beharreko ekipoen zerrenda	2
3.- Zerbitzuen ezaugarri teknikoak	2
4.- Eskaini beharreko hornigaien ezaugarriak eta eskakizun teknikoak	5
5.- Probak	13
6.- Mantentze-lanak	13
7.- Beste kondizio batzuk	14
8.- Hornigaiaren egokitasun teknikoari buruzko dokumentazioa	14



1.- Kontratuaren xedea.

Agiri honen xedea ordenagailu pertsonalez, monitorez eta inprimagailuz hornitzeko kontratazioa egitea da.

2.- Hornitu beharreko ekipoen zerrenda.

Eskatutako produktuen zerrenda hurrengo taulan agertzen da; kalkulaturako urteko aurreikuspena ere adierazten da bertan. Eskatutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira eta, horrenbestez, kopuru horiek baino handiagoak edo txikiagoak zilegi izango dira; horrek esan nahi du Partzuergoak ez duela horretarako konpromisorik hartzen.

1. sorta: Ordenagailuak eta monitoreak

PRODUKTU-ZENBAKIA	PRODUKTUA	KOPURUA
1	Mahai gaineko edo dorre motako ORDENAGAILUA	20
2	ORDENAGAILU trinkoa	4
3	WORKSTATIONA	4
4	ORDENAGAILU eramangarria (15,6")	40
5	ORDENAGAILU eramangarria (13,3")	30
6	MONITOREA (24")	40
7	MULTIMEDIA-MONITOREA (24")	20

2. sorta: Inprimagailuak

PRODUKTU-ZENBAKIA	PRODUKTUA	KOPURUA
1	ZURI-BELTZEZKO LASER-INPRIMAGAILUA	10
2	ZURI-BELTZEZKO LASER-INPRIMAGAILU ESKANERDUNA	5
3	KOLORETAKO LASER-INPRIMAGAILUA	4

3.- Zerbitzuen ezaugarri teknikoak:

- Lehiakideek agiri bidez bermatu beharko dute egindako ekipo-eskaerei garaiz erantzungo dietela eta premiazko gorabeherak kudeatuko dituztela.
- Ekipo-hornikuntzak barne hartuko du Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren instalazioetan entregatzea. Hornikuntza hori Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eskatuta egingo da, modu mailakatuan, kontratua indarrean egongo den urte osoan zehar. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak beretzat gordetzen du espezifikazioak betetzen ez dituzten ekipoak ordainik gabe itzultzeko eskubidea. Partzuergora bidali eta handik itzultzeagatikoko gastuak adjudikaziodunak ordainduko ditu.



- Hornikuntza garraio egoki batean egingo da, eta salgaiaren hornitzailea izango da haren arduradun hura entregatu arte.
- Salgaiekin batera albaran baloratuak aurkeztuko dira.
- Material-entregaren albarana sinatzeak ez du esan nahi materiala onartzen denik, ez kantitatean, ez kalitatean. Materiala gordailuan geratuko da, azterketa teknikoa egingo zaio eta azterketa horrek emaitza positiboa izan arte ez da onartutzat joko.
- Materiala akastuna bada, hornitzaileari itzuliko zaio, eta hark ordaindu beharko ditu garraio-kostuak. Hornigaia egoera onean dagoenean, hura hartzea eta horrekiko adostasuna adieraztea entregatu eta hurrengo hilabetearen barruan egingo da. Hornigaia jasotzeko moduan ez badago, berariaz jasoko da egoera hori, eta kontratistari beharrezko jarraibideak emango zaizkio akatsak zuzendu ditzan edo beste hornigai bat igor egin dezan.
- Agiri honetan xehatutako materialen hasierako eskaera kontratua adjudikatu eta gehienez 30 eguneko epean entregatuko da. Gainerako eskaerak kontratuan zehar banatuko dira. Eskaera horiek –eta, halaber, bermearen kudeaketa ere bai– zortzi lanorduko epean entregatu edo gauzatuko dira; beraz, adjudikazioduna arduratuko da ordezeko ekipoak eta materialak biltegietan edukitzeaz, entrega garaiz egin ahal izateko.
- Salbuespen gisa, beste entrega-epe bat hartuko da kontuan, justifikatutako arrazoiak badaude betiere; hornitzaileak aldeztu aurretik eman behar du horren berri, nolanahi ere.
- Entrega-epea zorrotz errespetatu beharko da. Kondizio hori behin eta berriz ez betetzea kontratua ezeztatzeko arrazoia izango da.
- Hornigaia erabiltzeko kondizio ezin hobeetan entregatuko da, dagokion helburua kontuan izanik.
- Adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu hornitu beharreko materiala garraiatzeko, paketatzeko eta abarretarako sortzen diren gastu guztiak.
- Aurkeztutako enpresek hornitu beharreko material guztia eskaini beharko dute. Lizitazioaren xede diren produktu guzti-guztiak eskaini beharko dira lehiaketatik kanpo ez geratzeko.
- Produktu guztiek bete beharko dute kalitateari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzko indarreko araudia.
- Hornikuntza Bilboko Ur Partzuergoaren bulegoetan egingo da, Bilbo hirian (Done Bikendi kalea 8, 1. solairua, Albia eraikina, edota Uribitarte kalea 8, 3. solairua). Ekipoen kaxak despaletizatuta hornituko dira, ezin baita paletik sartu bulegoetara.
- Hornikuntza-jarduera astelehenetik ostiralera egingo da, 08:00etatik 15:00etara.



- Ekipoak identifikatzeko, txasis-zenbaki bana jarriko zaie.
- Ekipoen osagaien *driver* guztiak deskargatzeko aukera ziurtatu beharko da, ekipoen fabrikatzailearen kokapen bakar batetik.
- Ekipoen BIOSa eta *firmwarea* entrega-unean eskuragarri dagoen azken bertsiora eguneratuta iritsiko dira.
- Ekipoak Ur Partzuergoaren master-irudiarekin konfiguratuko dira. Irudi hori adjudikaziodunak emandako lehen ekiporekin sortuko da, eta gainerako ekipoak plataformatzeko bidaliko da, BIOSa konfiguratzeko jarraibideekin batera. Master-irudi hori eta BIOSa konfiguratzeko jarraibideak edozein unetan eguneratu ahalko dira kontratuak dirauen bitartean.
- Kontratuak dirauen bitartean eskaintako ekipo-eredua fabrikatzeari uzten bazaio, ezaugarri berberak edo hobeak dituen ekipo batez hornitu beharko da, eskaintako prezioa aldatu gabe, eta Ur Partzuergoak onartu egin beharko du modelo-aldaketa hori.
- Hornitutako ekipo bakoitzeko, hornitzaileak bere gain hartuko du, BBUPrentzat inolako kosturik gabe, zaharkituta geratu den edota erositako aparatuen funtzio berak egin dituen ekipo baliokide bat erretiratzeko eta hondakin gisa kudeatzeko eginkizuna (110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa). Adjudikaziodunak proposatutako kudeatzaile baimenduak zuzenean jaso eta kudeatu ahalko ditu hondakinak. Halako kasuetan, BBUP arduratuko da hondakinak lekualdatzeko beharrezko dokumentazioa izapidetzeaz. BBUPrekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla-eta ezinezkoa bada horiek erretiratzea edo/eta dokumentuak izapidetzeko eskatutako informazioa eskuratu, adjudikazioduna bera arduratuko da zaharkitutako ekipoak kentzeaz eta, horretarako, bilketa-egiaztagiria edo -albarana emango du. Albaran horrek entrega-datari, aparatu-motari, markari eta serie-zenbakiari buruzko datuak jasoko ditu gutxienez. Hondakinak kudeatzaile baimenduari entregatu ondoren, adjudikaziodunak BBUPri agiri bidezko ebidentzia aurkeztuko dio, kudeaketa egokia dela frogatzeko.



4.- Eskaini beharreko hornigaien ezaugarriak eta eskakizun teknikoak

1. SORTA: Ordenagailuak eta monitoreak

1. PRODUKTUA: Dorre motako edo mahai gaineko ordenagailu pertsonalak:

GUTXIENKO EZAUGARRIAK:

1. Intel Core i5 Gen 12 prozesadorea edo hortik gorakoa
2. Intel Q670 *chipseta* edo hortik gorakoa
3. 18 MBko cache-memoria
4. 16 GBko RAM memoria (1 x 16 GB). Memoria hori areagotzeko aukera dago.
5. 4 DIMM memoriarako zirrikitu
6. SSD NVMe disko gogorra, 512 GBkoa edo hortik gorakoa
7. Super Multi geruza bikoitzeko DVD+-R/RW birgrabatzeko unitate optikoa
8. Ethernet 1000 sare-egokigailua
9. Wifi *dual band* egokigailua eta Bluetooth 5.3, lehenespenez desaktibatuak BIOSetan
10. Bereizmen handiko audiorako kodeka
11. USB sagu optikoa *scroll wheel*arekin
12. USB teklatu estandarra
13. Barneko elikatze-iturria
14. Gutxienez 4 USB 3.0 kanpo-konektore eta USB-C konektore bat aurrealdean eta 6 USB konektore atzealdean (horietako 4, gutxienez, USB 3.0).
15. 1 serie-ataka eta 2 DisplayPort irteera integratu
16. Plaka nagusiak aukera emango du goragoko gamako edo potentzia handiagoko prozesadore batera zabaltzeko.
17. Ekipoak vPRO teknologia izan behar du
18. Microsoft Windows 11 Professional x64 lizentzia (espainieraz), Windows 10erako *downgrade*arekin.
19. Karkasa guztien tamaina, kableen barne-antolaketa zaindua eta barruko osagaietara iristeko erraztasuna kontuan hartuko dira.
20. Mahai gaineko ohiko formatuan edo formatu txikian (35 cm x 30 cm gutxi gorabehera) eskatu ahalko da karkasa, lanpostu jakin batzuen konfiguraziora hobeki egokitu dadin. Hornitu beharreko ekipoen % 20 mahai gainekoak izan daitezkeela kalkulatzeko da.
21. Karkasaren estalkiak blokeoa izan beharko du, solenoidearekin eta estalki-sentsorearekin.

ESKAKIZUNAK:

1. Ordenagailu pertsonalak eskatutako gutxieneko ezaugarri guztiak bete behar ditu.
2. Ordenagailu pertsonalak HCL-Hardware Compatibility List delakoan (Microsoften hardware-bateragarritasunen zerrenda) agertu behar du
3. Produktuaren egonkortasuna: 15 hilabetetik gora
4. Zarata-mailak: ingurunekeo zaratari buruzko ISO 7779 eta 9296 arauak bete beharko ditu.
5. MIL-STD 810 probak gaingiduta izan behar ditu
6. Energy Star eta EPEAT GOLD ingurumen-ziurtagiriak



2. PRODUKTUA: Ordenagailu trinkoak:

GUTXIENeko EZAUGARRIAK:

1. Intel Core i5 Gen 12 prozesadorea edo hortik gorakoa
2. 12 MBko cache-memoria
3. 8 GBko RAM memoria (1 x 8 GB). Memoria hori areagotzeko aukera dago.
4. SSD NVMe disko gogorra, 256 GBkoa edo hortik gorakoa
5. Ethernet 1000 sare-egokigailua
6. Wifi *dual band* egokigailua eta Bluetooth 5.3, lehenespenez desaktibatuak BIOSetan
7. Sagua eta hari gabeko teklatuak (gutxieneko distantzia, 10 m).
8. Barneko elikatze-iturria
9. Gutxienez kanpoko 6 USB konektore (horietako 3, gutxienez, USB 3.2) eta USB-C konektore bat.
10. 1 serie-ataka, 1 DisplayPort ataka eta 1 HDMI ataka integratu.
11. Microsoft Windows 11 Professional x64 lizentzia (espainieraz), Windows 10erako *downgrade*arekin.
12. Gehienezko neurriak (zabalera x sakonera x altuera): 18 cm x 18 cm x 3.5

ESKAKIZUNAK:

1. Ordenagailu pertsonalak eskatutako gutxieneko ezaugarri guztiak bete behar ditu.
2. Ordenagailu pertsonalak HCL-Hardware Compatibility List delakoan (Microsoften hardware-bateragarritasunen zerrenda) agertu behar du
3. Produktuaren egonkortasuna: 15 hilabetetik gora
4. Energy Star eta EPEAT GOLD ingurumen-ziurtagiriak



3. PRODUKTUA: Workstationa:

GUTXIENEO EZAUGARRIAK:

1. Intel Xeon W3-2425 prozesadorea (4.2GHz) edo hortik gorakoa
2. Intel *chipseta*: C422, X299 edo hortik gorakoa
3. 15 MBko cache memoria
4. 32 GBko RAM memoria (2 x 16 GB). Memoria hori zabaltzeko aukera dago.
5. 4 DIMM memoria-arteka
6. SSD NVMe disko gogorra, gutxienez 512 GBkoa
7. Super Multi geruza bikoitzeko DVD+-R/RW birgrabatzeko unitate optikoa
8. Ethernet 10Gb sare-egokigailu bikoitza
9. USB sagu optikoa *scroll wheel*arekin
10. USB teklatu estandarra
11. Barneko elikatze-iturria
12. Memoriaren gutxienez 4 GBko bideo-txartela, gutxienez 4 monitore DisplayPort edo Mini DisplayPort erako irteerarekin.
13. Gutxienez 4 USB 3.1 kanpo-konektore aurrealdean eta 6 USB 3.1 konektore atzealdean
14. 1 serie-ataka
15. Plaka nagusiak aukera emango du goragoko gamako edo potentzia handiagoko prozesadore batera zabaltzeko.
16. Microsoft Windows 11 Professional x64 lizentzia (espainieraz), Windows 10erako *downgrade*arekin.

ESKAKIZUNAK:

1. Ekipoak eskatutako gutxieneko ezaugarri guztiak bete behar ditu.
2. Ekipoak HCL-Hardware Compatibility List delakoan (Microsoften hardware-bateragarritasunen zerrenda) agertu behar du
3. Produktuaren egonkortasuna: 15 hilabetetik gora
4. Energy Star eta EPEAT GOLD ingurumen-ziurtagiriak



4. PRODUKTUA: Ordenagailu eramangarria (15,6")

GUTXIENEO EZAUGARRIAK:

1. Intel Core i5 Gen 13 prozesadorea edo hortik gorakoa.
2. 12 MBko cache-memoria
3. 16 GBko RAM DDR4 memoria, 32 GB baino handitu daitekeena.
4. SSD NVMe diskoa, 512 GBkoa edo hortik gorakoa.
5. IPS FullHD pantaila (15,6"), islen aurkakoa eta panoramikoa, WebCam HD integratuarekin
6. Grafikoak: Intel Iris Xe edo hortik gorakoa
7. Bozgorailu estereo dualak eta matrize-mikrofono duala
8. Ethernet 1000 Txartelaren bidezko sare-konexioa (USB egokigailuaren bidez hornitu daiteke)
9. Wifi 6E eta Bluetooth 5.3
10. LTE modem integratua
11. Gutxienez 2 USB 3.2 ataka (horietako bat kargatzekoa) eta 2 USB-C ataka (horietako bat Thunderbolt 4)
12. 1 HDMI ataka eta 1 serie-ataka (integratuak edo USB egokigailuaren bidez)
13. Smart Card Reader seriean integratua
14. Sagu dual integratua eta bi botoi eta gupila dituen kanpo-sagu optikoa
15. Atzeraargitutako teklatua, ziprizekin erresistentea, zenbakizko teklatu integratuarekin.
16. Azterna-irakurgailua
17. Gutxienez 8 orduko autonomia
18. Microsoft Windows 11 Professional x64 lizentzia (espainieraz), Windows 10erako *downgrade*arekin.
19. Eramateko poltsa barne hartuko du
20. Docking Station bat –eramangarriaren marka berekoa– barne hartuko du, gutxienez 4 USB3.0 atakarekin, 1 USB-C atakarekin, 2 Display Port atakarekin, 1 RJ45 atakarekin, 1 HDMI atakarekin eta 1 konbo-atakarekin (aurikularra/mikrofonoa).

ESKAKIZUNAK:

1. Ordenagailuak eskatutako gutxieneko ezaugarri guztiak bete behar ditu.
2. Ordenagailuak Microsoften hardware-bateragarritasunen zerrendan (HCL-Hardware Compatibility List) agertu behar du
3. Zarata-mailak: ingurunekeo zaratari buruzko ISO 7779 eta 9296 arauak bete beharko ditu.
4. Energy Star eta EPEAT GOLD ingurumen-ziurtagiriak
5. MIL-STD 810 probak gaindituta izan behar ditu
6. Bateriaren tamaina, pisua eta iraupena oso kontuan hartuko dira balorazioa egiteko.



5. PRODUKTUA: Ordenagailu eramangarria (13,3")

GUTXIENEO EZAUGARRIAK:

1. Intel Core i5 Gen 13 prozesadorea edo hortik gorakoa.
2. 12 MBko cache-memoria
3. 16 GBko RAM DDR4 memoria, 32 GB baino handitu daitekeena.
4. SSD NVMe diskoa, 512 GBkoa edo hortik gorakoa.
5. IPS FullHD pantaila (13,3"), islen aurkakoa eta panoramikoa, WebCam HD integratuarekin
6. Grafikoak: Intel Iris Xe edo hortik gorakoa
7. Bozgorailu estereo dualak eta matrize-mikrofono duala
8. Ethernet 1000 Txartelaren bidezko sare-konexioa (USB egokigailuaren bidez hornitu daiteke)
9. Wifi 6E eta Bluetooth 5.3
10. LTE modem integratua
11. Gutxienez 2 USB 3.2 ataka eta 2 USB-C Thunderbolt 4 ataka
12. 1 HDMI ataka
13. Smart Card Reader seriean integratua
14. Sagu dual integratua eta bi botoi eta gurpila dituen kanpo-sagu optikoa
15. Atzeraargitutako teklatura, ziprizzinekiko erresistentea
16. Azterna-sentsorea.
17. Gutxienez 8 orduko autonomia
18. Microsoft Windows 11 Professional x64 lizentzia (espainieraz), Windows 10erako *downgrade*arekin.
19. Eramateko poltsa barne hartuko du
20. Docking Station bat –eramangarriaren marka berekoa– barne hartuko du, gutxienez 4 USB3.0 atakarekin, 1 USB-C atakarekin, 2 Display Port atakarekin, 1 RJ45 atakarekin, 1 HDMI atakarekin eta 1 konbo-atakarekin (aurikularra/mikrofonoa).

ESKAKIZUNAK:

1. Ordenagailuak eskatutako gutxieneko ezaugarri guztiak bete behar ditu.
2. Ordenagailuak Microsoften hardware-bateragarritasunen zerrendan (HCL-Hardware Compatibility List) agertu behar du
3. Zarata-mailak: ingurunekeo zaratari buruzko ISO 7779 eta 9296 arauak bete beharko ditu.
4. Energy Star eta EPEAT GOLD ingurumen-ziurtagiriak
5. MIL-STD 810 probak gaituta izan behar ditu
6. Bateriaren tamaina, pisua eta iraupena oso kontuan hartuko dira balorazioa egiteko.



6. PRODUKTUA: Monitorea (23,8")

GUTXIENEO EZAUGARRIAK:

1. Gutxienez 23,8"-ko LED-IPS pantaila.
2. 1920 x 1080 pixeleko bereizmen natiboa, 16:9ko pantaila-proportzioa
3. Gutxieneko distira: 250 nit
4. Pixelaren gehieneko tamaina: 0,30 mm.
5. Kontraste-koefizienteak: estatikoa 1000:1 eta dinamikoa 5000000:1
6. Gehieneko erantzun-denbora: 5 m.
7. Gutxieneko ikusmen-angelua: 178° bertikalean eta 178° horizontalean.
8. Pantailaren doikuntzak: altuera, inklinazioa, biraketa
9. Kolore zilarreztatua eta/edo beltza
10. Pantaila-estaldura: islen aurkakoa eta antiestatikoa
11. 4 USB atakatarako gailu integratua, autoelikadurarekin
12. VGA, HDMI eta DisplayPort konexioa
13. VGA, HDMI, USB eta DisplayPort kablea.

ESKAKIZUNAK:

1. Energy Star eta EPEAT GOLD ingurumen-ziurtagiriak
2. Ergonomia, diseinua eta estetika

7. PRODUKTUA: Multimedia-monitorea (24")

GUTXIENEO EZAUGARRIAK:

1. Gutxienez 23,8"-ko LED-IPS multimedia-pantaila.
2. 1920 x 1080 pixeleko bereizmen natiboa, 16:9ko pantaila-proportzioa
3. Gutxieneko distira: 250 nit
4. Pixelaren gehieneko tamaina: 0,30 mm.
5. Kontraste-koefizienteak: estatikoa 1000:1 eta dinamikoa 5000000:1
6. Gehieneko erantzun-denbora: 5 m.
7. Gutxieneko ikusmen-angelua: 178° bertikalean eta 178° horizontalean.
8. Pantailaren doikuntzak: altuera, inklinazioa, biraketa
9. Kolore zilarreztatua eta/edo beltza
10. Pantaila-estaldura: islen aurkakoa eta antiestatikoa
11. Webcam integratua (5 MP)
12. Mikrofonoa eta bozgorailu erantsiak (2 x 2 W)
13. 4 USB atakatarako gailu integratua, autoelikadurarekin
14. HDMI eta DisplayPort konexioa
15. HDMI, USB eta DisplayPort kablea.

ESKAKIZUNAK:

1. Energy Star eta EPEAT GOLD ingurumen-ziurtagiriak
2. Ergonomia, diseinua eta estetika



2. SORTA: Inprimagailuak

1. PRODUKTUA: Zuri-beltzeko laser-inprimagailua

GUTXIENEO EZAUGARRIAK:

1. Zuri-beltzeko A4 laser-teknologia
2. Inprimatze-abiadura hauetatik aurrera: 27 orrialde minutuko, edo 24 orrialde minutuko duplex moduan.
3. Gutxieneko bereizmena: 1200 puntu hazbete bakoitzeko.
4. Lehenengo orrialdea 9,5 segundotik beherako pausagune-modutik.
5. Duplex irteera-inprimaketa
6. USB interfazea, Ethernet 100Base-TX/1000Base-T
7. 256 MBeko edo hortik gorako RAM memoria.
8. HP ePrintekin bateragarria.
9. Windows 10erako ziurtagiria
10. Gutxienez 250 orriko kaxa

ESKAKIZUNAK:

1. Ingurumen-ziurtagiriak: Energy Star
2. *Instant-on* teknologia energia aurrezteko

2. PRODUKTUA: Zuri-beltzeko laser-inprimagailua eskanerrarekin

GUTXIENEO EZAUGARRIAK:

1. Zuri-beltzeko A4 laser-teknologia
2. Inprimatze-abiadura hauetatik aurrera: 40 orrialde minutuko, edo 34 orrialde minutuko duplex moduan.
3. Gutxieneko inprimatze-bereizmena: 1200 puntu hazbete bakoitzeko.
4. Lehenengo orrialdea 8,6 segundotik beherako pausagune-modutik.
5. Duplex irteera-inprimaketa
6. Eskaneatze-abiadura honetatik aurrera: 26 orrialde minutuko
7. 50 orrialdeko dokumentu-elikagailua, buru bikoitz bidezko eskaneatzearekin kopiarako eta pasaldi bakarreko duplex-eskaneatzearekin
8. Posta elektronikora, USBra eta sare-karpetara eskaneatzeko aukerak
9. USB interfazea, Ethernet 100Base-TX/1000Base-T
10. 512 MBeko edo hortik gorako RAM memoria.
11. HP ePrintekin bateragarria.
12. Windows 10erako ziurtagiria
13. Gutxienez 250 orriko kaxa

ESKAKIZUNAK:



1. Ingurumen-ziurtagiriak: Energy Star
2. *Instant-on* teknologia energia aurrezteko

3. PRODUKTUA: Koloretako laser-inprimagailua

GUTXIENEO EZAUGARRIAK:

14. Koloretako A4 laser-teknologia.
15. Inprimatze-abiadura: 21 orrialde minutuko (zuri-beltzezkoa eta koloretakoa).
16. Gutxieneko inprimatze-bereizmena: 600 puntu hazbete bakoitzeko.
17. Lehenengo orrialdea 12,3 segundotik beherako pausagune-modutik.
18. Duplex irteera-inprimaketa
19. USB interfazea, Ethernet 100Base-TX/1000Base-T
20. 256 MBeko edo hortik gorako RAM memoria.
21. HP ePrintekin bateragarria.
22. Windows 10erako ziurtagiria
23. Gutxienez 250 orriko kaxa

ESKAKIZUNAK:

3. Ingurumen-ziurtagiriak: Energy Star
4. *Instant-on* teknologia energia aurrezteko



5.- Probak

Ur Partzuergoko teknikariek koordinatuta, probatu egingo da ekipo bakoitza behar bezala konfiguratuta dagoela eta konfigurazioaren arabera esperotako portaera duela.

Ur Partzuergoak 500 ekipo inguru ditu gaur egun, eta HP Systems Insight Manager aplikaziotik kudeatzen ditu alarmak. Hornitu beharreko ekipoak alertak kudeatzeko sistema honetan sartu beharko dira aurrekoekin batera, BBUPEko langileek horietan egin beharreko mantentze-lanak errazagoak izan daitezten. Lizitatzailak tresna horren ekipoen lizentziak, hornikuntza eta instalazioa barne hartuko ditu eskaintzan. Gainera, aplikazio honen azken bertsiora eguneratzeko eta zerbitzari berri batera migratzeko zereginak jasoko ditu (Ur Partzuergoak beharrezkotzat jotz gero betiere).

6.- Mantentze-lanak

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartu beharko du bermealdian ekipoen mantentze-lanak egiteko. Mantentze-lan horien barruan sartuko dira akastunak direnak ordeztzea eta matxuratutako piezak konpondu eta horietaz hornitzea.

Telefono bidezko laguntza teknikorako ere balioko du, nola funtzionamendu-parametroei buruzko zalantzak hala Partzuergoko langileei interesatzen zaien beste edozein arazo teknikori buruzkoak argitze aldera. Kontsulta horiekin ez bada emaitza onik lortzen zortzi lanorduko epean, *in situ* laguntza tekniko beharrezkotzat jotzeko da.

Mantentze-lanetarako zerbitzua lanegunetan emango da, 08:00etatik 18:00etara. 12:00ak baino lehen emandako abisuetarako, erantzuna eta/edo konponketa egun berean egin beharko da. 12:00etatik aurrerako jakinarazpenetarako, zortzi lanorduko epea emango da.

Hornitzailearekin zerikusirik ez duten arazoengatik (garraio-arazoak, etab.) beste edozein epe jakinarazi egin beharko da.

Mantentze-lanetako jarduketak ekipoa behin betiko instalatuta dagoen lekuan egingo dira.

Aldizkako matxuren edo diagnostikatzen zailak diren matxuren kasuan, matxuratutako ekipoa antzeko ezaugarriak dituen beste batekin ordezkatzeko da aldi baterako. Ordezkapen horrek garrantzi berezia izango du ekipo eramangarrietan.

Ordenagailuen kasuan, nola hornitutako ekipotan hala lagatakoetan, bai eta matxuratutakoetan ere, adjudikaziodunak Partzuergoak emandako software estandarra eta gainerako osagaiak berrinstalatu ditu. Partzuergoko teknikarientzat bakarrik geratuko dira domeinuan sartzeko lanak eta erabiltzaileentzako baimenak. Ataza horiek barne hartu beharko dituzte nola sistema eragilea hala Partzuergoak emandako softwarea instalatzea, bai eta ekipoen BIOSa konfiguratzea ere, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren instalazio-eta konfigurazio-irizpideei jarraikiz betiere.

Ekipoak konpontzeko eta aldatzeko, BBUPEko teknikariek emandako master-diskoa Partzuergoaren bulegoetan instalatuko da beti, informazioaren segurtasuna babeste aldera.



7.- Beste kondizio batzuk

Ekipoak Ur Partzuergoaren gainerako azpiegitura mikroinformatikoarekin integratu beharko dira, bermeen egungo kudeaketa barne hartuta.

Kontratistak konfidentzialtasun osoz gordeko ditu zerbitzua emateko erabilitako datuak eta dokumentuak.

8.- Hornigaiaren egokitasun teknikoari buruzko dokumentazioa

Eskainitako ekipoei dagokienez, konfigurazioa osatzen duten osagai guztiak dokumentatuta agertu beharko dira; halaber, kontratuaren xedearen deskribapenaren osagarri grafiko gisako katalogoak, liburuxkak, argazkiak eta diseinuak erantsi beharko dira.

Gainera, eskainitako produktuen parte diren osagai guztien marka, eredua eta ezaugarriak zehatz-mehatz zerrendatu beharko dira, ekipoek aurretik eskatutako gutxieneko ezaugarri teknikoak betetzen ote dituzten argi eta garbi ikusteko. Gutxieneko ezaugarri horiei dagokienez eskainitako hobekuntzak edo abantailak ere xehatuko dira.

Bilbo, 2024ko maiatzak 22.

Kontratuaren kudeatzailea
David Alonso

Informatikako zuzendariordea
Jose Luis Unzueta